

Aukerako berraztertzeko errekurtsua jarri zenetik hilabetera ebazpen adierazirik ematen ez bada, errekurtsua ezetsi egin dela esan nahiko du. Orduan, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango da, aipatutako moduan.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko ekainaren 8a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

Bestelako Xedapenak

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRATIO SAILA INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

4029

159/2006 DEKRETUA, uztailaren 26koa, «Basquetour, Turismoaren Euskal Agentzia, Agencia Vasca de Turismo, S.A.» sozietate anonimo publikoa sortu eta horren partaidetza eskuratzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari baimena ematen diona.

Hazteko gaitasuna duen sektore ekonomikoa denez, sektore turistikoa garatu eta sustatzeko beharrezko ikusten da honakoa: erkidego honetako administrazio turistikoak kudeaketa-organo bat izatea, hain justu ere antolakuntza eta funtzionamendu azkarra izanik, Euskadi destino legez bultzatzen duten estrategiak eta ekintzak burutuko dituen, nazioartean Euskadi erreferentzia turistiko bihurtuaz.

Hartarako, turismoaren arloko politikaren helburuak erdiesten lagunduko duen sozietate anonimo bati dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa sortzaile izatea eta partaidetza izatea beharrezkoztat jotzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak. Bada, lege horren 20.3 artikulua ezarritakoarekin bat etorriaz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa edo bere erakundeetako baltzu publikoak sortu eta desagerrarazteko eta eratutako baltzuetako partaide nagusi bilakatu ahal izateko edo partaide nagusi izateari uzteko, Jaurlaritzaren dekretu bat behar da, Euskadiren Ondareari buruzko uztailaren 27ko 14/1983 Legearen 44.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriaz onartuko dena, betiere Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak eta sozietatea adminis-

Si transcurriese un mes desde la interposición del recurso potestativo de reposición sin que recaiga resolución expresa, se podrá entender desestimado el mismo, pudiéndose interponer recurso contencioso-administrativo en los términos citados anteriormente.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de junio de 2006.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

4029

DECRETO 159/2006, de 26 de julio, por el que se autoriza a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco para la creación y adquisición de participaciones de la sociedad anónima pública «Basquetour, Turismoaren Euskal Agentzia, Agencia Vasca de Turismo, S.A.».

La promoción del turismo y el desarrollo del sector turístico, en tanto sector económico con gran capacidad de crecimiento, aconseja que la Administración turística de esta Comunidad cuente con un órgano de gestión que, con una organización y un funcionamiento ágil, ponga en práctica las estrategias y acciones diseñadas para impulsar el destino Euskadi como referente turístico internacional.

Para ello, se considera preciso la creación y participación por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en una sociedad anónima que contribuya a cumplir los objetivos de la política turística.

Conforme a lo establecido en el artículo 20.3 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, la creación y extinción de sociedades públicas, así como la adquisición o pérdida de la condición de partícipe mayoritario en las mismas de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi o de sus entes institucionales, precisarán de Decreto del Gobierno, el cual se aprobará, según lo previsto en el artículo 44.1 de la Ley 1/1983, de 27 de julio, de Patrimonio de Euskadi, a propuesta conjunta del Consejero de Hacienda y Administración Pública y del Consejero del Departamen-

tratiboki menpean duen saileko buruak batera proposaturik.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren eta Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko uztailaren 26an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari baimena ematea ondoko sozietate anonimo publikoa sortzeko: eratzen denean bazkide bakar legez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa izango duena eta «Basquetour, Turismoaren Euskal Agentzia, Agencia Vasca de Turismo, S.A.» izena izango duena.

2. artikulua.— Sozietateak bi xede izango ditu: alde batetik, merkatuaren egoeraren arabera estrategikoak eta lehentasunezkoak diren estatutuko eta nazioarteko merkatuetan, Euskadi sustatzeko beharrezko diren sustapen-, merkaturatze- eta publizitate-ekintzak gauzatea; eta, halaber, Eusko Jaurlaritzan turismoaren arloan eskumenak dituen organoak agindutako leku eta foroetan.

Bestaldetik, euskal sektore turistikoaren lehiakortasuna hobetzeko beharrezko diren ekintzak bultzatu, abiarazi eta burutzea. Eusko Jaurlaritzan turismoaren arloan eskumenak dituen organoak diseinatu eta planifikatuak izango dira ekintza horiek.

Sozietateak bere xedearen barruko ekintzak osorik edo zati baten gara ditzake zeharkako eran, xede berdina edo antzekoa duten sozietateetan parte hartuaz.

3. artikulua.— Sozietatea eratzeko kapitala 90.000 eurokoa izango da, 90 akziotan banatua, bakoitza 1.000 euroko balio izendatuarekin. Akzioak izendunak izango dira eta eraketa-kapitala osorik harpidetu eta ordainduko du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak.

Sozietatea eratzean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak harpidetzen dituen akzioen nominala gutziz ordaintzeko baimena ematen da.

4. artikulua.— Bazkide bakarra denez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagozkion bazkide-eskubideak Jaurlaritzaren Kontseiluak baliatuko ditu; eta Jaurlaritzak, bazkide bakarra baita, Akziodunen Batzar Nagusia eratuko du.

2.— Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak bazkide bakarra izateari uzten badio, bazkide-eskubideez baliatzea Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari egokituko zaio.

to del que la sociedad haya de depender administrativamente.

En su virtud, a propuesta de las Consejeras de Hacienda y Administración Pública y de Industria, Comercio y Turismo, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 26 de julio de 2006,

DISPONGO:

Artículo 1.— Autorizar a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco la creación de una sociedad pública, con forma de sociedad anónima, cuyo único socio en el momento de la constitución será la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi que tendrá la denominación de «Basquetour, Turismoaren Euskal Agentzia, Agencia Vasca de Turismo, S.A.».

Artículo 2.— El objeto social de la sociedad será doble: por un lado, ejecutar las acciones de promoción, comercialización y publicidad necesarias para la promoción de Euskadi en los mercados estatales e internacionales que sean prioritarios y estratégicos de acuerdo con la coyuntura del mercado y en cuantos foros y lugares le encomiende el órgano del Gobierno de la Comunidad Autónoma Vasca competente en materia turística.

Por otro, impulsar y poner en marcha y ejecutar las acciones necesarias para la mejora de la competitividad del sector turístico vasco, diseñadas y planificadas por el órgano del Gobierno de la Comunidad Autónoma Vasca competente en materia turística.

Las actividades integrantes del objeto social podrán ser desarrolladas por la sociedad, total o parcialmente, de modo indirecto mediante su participación en sociedades con idéntico o análogo objeto.

Artículo 3.— El capital social fundacional será de 90.000 euros, representado por 90 acciones de 1.000 euros de valor nominal cada una. Las acciones serán nominativas y el capital fundacional será suscrito y desembolsado íntegramente por la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Se autoriza la realización del desembolso íntegro del nominal correspondiente a las acciones que se suscriben por la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el momento de constituirse la sociedad.

Artículo 4.— 1.— Los derechos de socio correspondientes a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en tanto ésta sea el único socio, serán ejercitados por el Consejo de Gobierno Vasco, que como socio único, constituirá la Junta General de Accionistas.

2.— En el supuesto de que la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco pierda su condición de socio único, el ejercicio de los derechos de socio corresponderá al Consejero de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco.

5. artikulua.— Sozietate anonimoa, zeina eratzeko baimena ematen baita, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari atxikitzen da dekretu honen bitartez.

2.— Bere helburua lor ditzan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak «Basquetour, Turismoaren Euskal Agentzia, Agencia Vasca de Turismo, S.A» sozietate publikoaren esku utz ditzake Administrazioaren titularitatepeko ondasunak eta eskubideak. Esku uzte horrek ez du ekarriko ondasun eta eskubideen titularitatea zein kalifikazio juridikoa aldatzerik; eta dena delako ondasun eta eskubideak babestu, gorde, kudeatu eta administratu beharra ezartzen dio sozietateari. «Basquetour, Turismoaren Euskal Agentzia, Agencia Vasca de Turismo, S.A.» sozietate publikoari esleitzen zaizkion ondasunak eta eskubideak honela baliatu beharko dira: Euskadiko Ondarearen uztailaren 27ko 14/1983 Legeko 55. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriaz.

6. artikulua.— Ondare eta Kontratazio zuzendaria-ri eta Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari baimena ematen zaie, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izenean, ondoko ekintzetan parte hartzeko: sozietatea eratzeko eskritura publikoa ematea; sozietatearen estatutuak onartzea; izendatu eta gero, administrazio-kontseiluko kide eta kargudunen izendape-na formalizatzea; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari doazkion akzioak harpidetu era ordaintzea; eta sozietatea eratzeko beharrezko diren dokumentu publikoak zein pribatuak ematea.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko uztailaren 26an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

Artículo 5.— 1.— La sociedad anónima cuya constitución se autoriza por este Decreto se adscribe al Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

2.— La Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi podrá poner a disposición de la sociedad pública Basquetour, Turismoaren Euskal Agentzia, Agencia Vasca de Turismo, S.A. para el cumplimiento de sus fines, bienes o derechos de titularidad de la Administración. La citada puesta a disposición no implicará un cambio en la calificación jurídica ni en la titularidad de los bienes y derechos y conllevará la asunción, por parte de la sociedad pública, de la tutela, guarda, gestión y administración de los bienes y derechos de que se trate. La explotación de los bienes y derechos que se encomienden a la sociedad pública Basquetour, Turismoaren Euskal Agentzia, Agencia Vasca de Turismo, S.A. se regirá por lo dispuesto en el artículo 55 de la Ley 14/1983, de 27 de julio, sobre Patrimonio de Euskadi.

Artículo 6.— Se faculta tanto al Director de Patrimonio y Contratación como a la Consejera de Industria, Comercio y Turismo para concurrir, en nombre de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, al acto de otorgamiento de la escritura pública de constitución de la sociedad, aprobación de los estatutos sociales y formalización de la designación de los cargos y miembros del Consejo de Administración, una vez hayan sido designados, así como para materializar los desembolsos y aportación necesarios para la suscripción y cobertura del importe de las acciones atribuidas a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y extender cuantos documentos públicos y privados sean precisos para la constitución de la sociedad.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto surtirá efectos desde el día de su aprobación.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 26 de julio de 2006.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

La Consejera de Industria, Comercio y Turismo,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.